

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

#### Diputatu nagusiaren 323/2019 Foru dekretua,uztailaren 5ekoa, foru diputatuak kargutik kentzen dituena

Uztailaren 3ko 133/2015 Foru Dekretuz, diputatu nagusiak Pilar García de Salazar Olano andrea, Cristina González Calvar andrea, José Luis Cimiano Ruiz jauna, Eduardo Aguinaco López de Suso jauna, Igone Martínez de Luna Unanue andrea eta José Antonio Galera Carrillo jauna izendatu zituen Ekonomia Sustapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko, Nekazaritza Saileko, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko eta Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatu, hurrenez hurren. Gero, azaroaren 29ko 338/2016 Foru Dekretuaren bidez, M. Antonia Olabarrieta Ibarrondo andrea, izendatu zen Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua.

Abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzkoak, 19.8 eta 39. artikuluetan diputatu nagusiari ematen dio foru diputatuak kargutik kentzeko eskumena.

Horregatik, diputatu nagusi naizen aldetik dagozkidan ahalmenez baliatuz, hauxe

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Kargutik kentzea ondoren aipatzen diren foru diputatuak:

1. M. Pilar García de Salazar Olano andrea, diputatu nagusiorde eta Ekonomia Sustapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua.
2. Cristina González Calvar andrea, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua.
3. José Luis Cimiano Ruiz jauna, Foru Gobernu Kontseiluko idazkari eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua.
4. Eduardo Aguinaco López de Suso jauna, Nekazaritza Saileko foru diputatua.
5. Igone Martínez de Luna Unanue andrea, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua.
6. José Antonio Galera Carrillo jauna, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua.
7. M. Antonia Olabarrieta Ibarrondo, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua.

Bigarrena. Eskerrak ematen dizkiet kargutik kendutako foru diputatuei egin duten lanagatik. Hirugarrena. Foru dekretu hau ALHAOan argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 5a

*Diputatu nagusia*  
**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**